

Obra osoen irakurketaren helburu nagusiak

(*Hatier- laburtua*)

Obra oso eta luzeen irakurketaren helburu nagusia molde autonomoan irakurtzeko gustua ematea da.

1-Ulermen

2-Irakurle jokamoldea

3-Kultura literarioa garatzea

1- Ulermen

Testu bat isilean irakurri eta ulertu.

Irakurri edo entzun den obra oso baten berri emateko ondoko elementuak behar dira ulertu eta gogoan atxiki:

- informazio esplizituak (ilustrazioak, izenburua, antolaketa, lexikoa)
- zer testu mota den, narrazioa, narrazio historikoa, dokumentua, fikzioa ala erreala den bereizi.

Aldizka irakasleak ozenki eta ikasleek isilean irakurriz, hauek bideratzen dira:

-narrazioaren koherentzia

xerkatzea: pertsonaiak jarraitu (horien arteko loturak, potretak, ibilbide narratiboak), narratzailearen tokia (nork kontatzen du, zer, nori, zer daki, nola erraten du, zer da bere ikuspuntua?), narrazioaren espazio denbora ezagutu (non eta noiz).

-intrigaren urratsak ordena egokian berriz ematea.

- testuaren interpretatzea (interpretazio morala, sinbolikoa)

-zati ezaugarri bat hautatzea, ozenki irakurtzea, eta hautu hori **justifikatzea** narrazio horren aurkezteko.

- "ez berehalako plazer" bati dastatzen ikastea, testuak dituen zailtasunak edo oztopoak gaindituz.

-irakurri/idatzi interakzioan trebatzea ekoizpen egokiak eginaraziz.

2-Irakurle jokamoldea

Ikasleak bideratu:

-irakurketaren oztopoen gainditzea.

-ikastaldearen aitzinean ozenki irakurtzea.

- irakur-estrategiak egokitzea generoaren arabera eta idazlearen intentzioak ulertzea.

- konparatze jokamoldea

barnatzea (genero berdineko edo ezberdineko obrak ezagutzera)

-memorian xerkatzen ikastera loturak egiteko.

-testuari buruz eztabaidatzea: argumentatu, bestea entzun, ulermen ezberdinak posible balin badira ere ez dira interpretazio guziak onargarri.

3- Kultura literarioa

Haurrak, ttipitik, memoria istorioz hazia du. Irakasleak, kapital hori erabiliz, erreferentzia oinarri bat garatu behar du, olerki, ipuin, gazte literaturako narrazioak, obra osoak irakurriz, ikasleen adina eta kultura kontuan hartuz.

Ikasle bakoitza lagunduz:

-Kultura literario baten lortzera ikaskideekin partekatua dena edo bakarkakoa, urtean irakurri dituen obren izenburu eta idazleen izenak gogoan atxikiz.

-Zentzu ezberdinetako testu batzuekin kontaktuan izatera; azpi-erranak osatuz.

-testuen eragin eta funtzio

ezberdinak ezagutzera:

emozioak sortzeko, irudikatzeko, mundua ezagutzeko, balore unibertsalen partekatzeko, nork bereburuaz eta besteez gogoetatzeko.

Printzipioak

1-Literatura obren hautu egokia.

2-Ikasleen arteko ezberdintasunei egokitzea.

- irakurle ez hain adituak
- irakurle adituak

3- Talde osoko lan mementoak

Berriz irakurri, gibelera egin:

- **Pertsonaien potreta** egiteko eta haien **ibilbidearen** jarraitzeko.
- Landu narrazioaren **literatura ezaugarriak** bereizteko
- **Interpretazio eztabaidaren** elikatzeko. Eztabaida testuaren **oztopoetan** eta **baloreetan** zentratua da. **Intrigaren laburpena** hasi aitzin, **"Nork du kontatzen?"** galderarekin abiatu behar da. Testuaren argitzea da lehen helburua, ikasleek testua nola hartzen duten eztabaidatuz, emozioak azalduz, gogoetak, galdeketak, iritziak argumentatuz...
(*Ikasleak ikasten du ez dela edozein interpretazio onargarri*).
- **Ulermenaren hobetzeko hizkuntza- tresnen azterketa** landu (lexikoa, aditzaren denbora, puntuazioa, elkarrizketa-markak, denbora eta logika antolatzaileak, hitz baten berezko eta irudizko errannahiak, konparazioak).

4-Jarduerak

Irakasleak irakurketa osorako proposatuko duen obra arras ongi ezagutu behar du, ustiapen pistak eta agertuko diren oztopo eta galderak aitzinetik ikusiak izan behar ditu.

Iraupena : 2 edo 4 astez (ez gehiago). Haurren memoria, interesa eta arreta fite nekatzen dira.

Materiala:

- testu bat ikasleka
- dokumentalak gaiak eskatzen badu
- sailkagailu edo irakurketa kaier pertsonala
- arkatz gain-marratzaileak
- Afixa handiak, dena gogoan atxikitzeko

1)Irakurketa osoa:

- **Obraren deskubritzea** (saio bat edo bi: aurkibidea, kapituluak, laburpena...)
- Egunero 2/3 kapitulu irakurtzen dira (4/8 saio gehienik)

Aldizkatzen da:

- irakaslearen irakurketa ozena.
- ikasleen irakurketa isila.
- irakasleak egindako laburpen ttipiak ikasleen oroimena laguntzeko.

- **Taularen osatzea**
"Narrazioaren progresio eta koherentzia/urratsak" afixa handi batean.

- gidoiaren borobiltzeko
- azterna laburtu baten atxikitzeko.

5- Fitxa fotokopiagarriak

-Ebaluazio fitxak ulermenaren egiaztatzeko.

-Sintesia fitxak, irakurketaren aztarnak, obraz, idazleaz eta literatur genero horretaz atxiki dugunaren borobiltzeko.

Ez da beti idazte jarduerarik izan behar; irakurketa saio batean irakurtzen da!

6- Irakurketa kaier pertsonala

Hau da irakurketaren eta irakurlea markatu duten memento intimoen lekukoa. Erranaldi bat, zati bat, ilustrazio bat, ederki idatzirik ematen da. Hautu bakoitza ikastalde aitzinean justifikatu behar da.

7- Literatur sareak: idazle, genero, pertsonaia, mito, balore edo gai bereko obrekin loturak egiten dira.